



# XLVII Congress of the Iberian Society of Biomechanics and Biomaterials

**Aza. 06 - Aza. 07 2025**

**Kod. Z28-25**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2025

**Jarduera mota**

Workshop

**Data**

Aza. 06 - Aza. 07 2025

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Ingelesa Gaztelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



Fundación  
BBVA



# Azalpena

**Laburpenak bidaltzeko deialdia irekita dago jada!**

**Donostia-San Sebastián izango da Biomekanika eta Biomaterialen Elkarte Iberiarraren XLVII. Kongresuaren egoitza, 2025eko azaroaren 6an eta 7an.**

Bidali zure ekarpena [dokumentu-eredu](mailto:sibb2025@gmail.com) hau erabiliz helbide honetara: [sibb2025@gmail.com](mailto:sibb2025@gmail.com)

Aurten, kongresuak elkartearen hiru arlo nagusiak jorratuko ditu: **Biomaterialak, Biomedikuntza eta Kirol Biomekanika**. Ekitaldiak foro dinamiko bat eskainiko die ikertzaileei, beren azken ekarpen zientifikoak aurkezteko eta eztabaidatzeko, gure kongresuaren ezaugarri den giro bero familiar eta aberasgarri batean. Ekitaldi parte-hartzaile eta diziplina anitz biltzen duena antolatzea da gure helburua, biomaterialen, biomedikuntzaren eta kirol biomekanikaren inguruan biltzen diren gai desberdinak gaiak jorratuz.

**Pozten gaitu aurten Donostia-San Sebastiánen** ekitaldia jasotzea, ekosistema zientifiko eta teknologiko aberatsa eta kultura- eta natura-ondare paregabea uztartzen dituen hiria izanik. Materialen eta zientzia biomedikoen alorreko ikerketa-zentro aurreratuak, unibertsitateak eta enpresa aitzindariak ditu, eta horrek Donostia kokaleku ezin hobe bihurtzen du kongresu honen edizioa ospatzeko. Berrikuntzarekiko duen konpromisoak eta bikaintasun zientifikoarekiko duen dedikazioak indartzen dute gure diziplinarterako lankidetzeta eta ezagutzaren trukea sustatzeko misioa.

Kongresua **Miramar Jauregian** izango da, eta bi eguneko programa osoa izango du, honako hauek barne: hitzaldi nagusiak, ahozko saioak, poster aurkezpenak eta **Ikertzaile Gazteei** zuzendutako jarduerak, diziplina eta ibilbide profesional ezberdinetako ikertzaileen arteko harremanak sustatzeko.

Ondoko hizlari gonbidatuen parte-hartzea baieztatu dugu: Sandra Camarero (POLYMAT), Manuel Mazo (CIMA), Francesco Capuano (Universidad Politécnica de Cataluña), eta Jose Muñoz (Universidad Politécnica de Cataluña).

Beste hizlari gonbidatu batzuk laster iragarriko dira, beraz, egon adi!

**Batzorde Zientifikoa** honako hauek osatzen dute:

- **Clara García Astrain** (POLYMAT),
- **Dorleta Jiménez de Aberasturi** (CIC biomaGUNE),
- **Gil Serrancolí** (Universidad Politécnica de Cataluña),
- **Juan García** (Universidad de León),
- **Enrique Navarro Cabello** (Universidad Politécnica de Madrid).

**Ikertzaile Gazteen jarduerak** honako hauek antolatuko dituzte:

- **Nieves Cubo** (Universidad de Nebrija),
- **Andreia Pereira** (I3S - Instituto de Investigação e Inovação em Saúde, Portugal).

Zure zain egongo gara Donostia-San Sebastiánen, 2025ean!

## **DATA GARRANTZITSUAK:**

Erregistroa irekitzea: asap

**Laburpenak bidaltzeko azken eguna: 2025/06/30**

Laburpenen onarpena: 2025/07/31

Aurreraturako erregistroaren amaiera: 2025/09/30

Erregistro itxiera: 2025/10/15

## Helburuak

- Biomaterialak, biomedikuntza eta kirol-biomekanikaren alorretan lortutako emaitzak, esperientziak eta komunikazio zientifikoak trukatzeko.
- Biomekanika eta Biomaterialen Elkartea Iberiarraren arlo ezberdinetako azken garapenen inguruan eztabaida sustatzea.
- Ikerketa diziiplina anitzekoa eta ezagutzaren elkartrukea bultzatzea.
- Ikerketa akademiko eta industrialeko profesionalen arteko topagune bat sortzea, karrera-maila desberdinetan.
- Ikertzaile gazteak inplikatzeko, belaunaldi berrien artean lankidetzak eta ezagutzaren trukea sustatzeko biomaterialen, biomedikuntzaren eta kirol-biomekanikaren esparruetan.
- Giro atsegina eta hurbilean partekatzeko aukera eskaintzea, ahozko aurkezpen, poster saio eta gizarte-jardueraren bidez.

## Antolakuntza



**CICbiomaGUNE**  
MEMBER OF BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

**POLYMAT**  
Basque Center for  
Macromolecular Design and Engineering

## Lankidetzak



## Zuzendaritza



**Clara García Astrain**

POLYMAT

---

Clara García Astrain Ikerbasque ikertzailea da POLYMATen, non biosentsoreetarako erabilera duten polimero funtzionalen garapenean aritzen den. Bere doktoretza Ingeniaritza Material Berrerabilgarrietan burutu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), ikerketa-egonaldi bat Karlsruhe Institute of Technology-n (KIT, Alemania) eginez, non aplikazio biomedikoetarako hidrogel nano-konposatuetan espezializatu zen. Doktoretza ondoren, ikerketa postdoktorala burutu zuen Institute of Chemistry and Processes for Energy, Environment and Health-en (ICPEES, University of Strasbourg, Frantzia). Euskal Herrira itzulita, BCMaterials-en (Leioa, Bizkaia) eta geroago CIC biomaGUNE-n (Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa) lan egin zuen Juan de la Cierva bekadun gisa. 2024an POLYMATera batu zen, eta bertan jarraitzen du material zientziaren eta bioingeniaritzaren arteko muga ikertzen, 3D zelula-ereduen barruan biosentsore-plataformen integrazioa aztertuz prozesu biologikoen in situ monitorizaziorako.



**Dorleta Jiménez de Aberasturi ---**

CICbiomaGUNE

---

Dorleta Jiménez de Aberasturi Ikerbasqueko ikertzailea, eta Ramón y Cajal bekaduna, 2023tik CIC biomaGUNEko Material Hibrido Biofuntzionalen taldeko burua da. Dorleta Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) lizentziatu zen 2006an. 2013an, doktoretza titulua jaso zuen UPV/EHUren eta Philipps University of Marburg unibertsitateetatik (tutorekidetzan eginda). Zuzendariek Prof. T. Rojo , Dr. I. Ruiz de Larramendi eta Prof. W. Parak izanik. 2014 an Prof. L. Liz-Marzánen taldeko kide izatera pasa zen nanopartikula plasmoniko koloidalaren sintesian eta funtzionalizazioan espezializatuz. Esperientzia izugarria du bioaplikazioetarako material nanoegituratu hibridoaren diseinuan. 3D in vitro eredu dinamikoaren biofabrikaziorako material hibrido funtzionalen garapenean eta eredu horiek eta prozesu biologiko desberdinak ulertzeko kontraste-agenteen eta/edo biosentsoreen garapenean oinarritzen da bere ikerketa taldea.

# Matrikula prezioak

| MATRIKULA                     | 2025-09-30 ARTE | 2025-10-15 ARTE |
|-------------------------------|-----------------|-----------------|
| Orokorra - Senior             | 350,00 EUR      | 400,00 EUR      |
| Doktoregoko Ikaslea           | 250,00 EUR      | 300,00 EUR      |
| Gradu eta masterreko ikasleak | 50,00 EUR       | 50,00 EUR       |

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa